

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Baso aprobetxamendurako enkante publikoa

Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak 2021eko abuztuaren 20an egindako kontzeju bilkuran hartutako erabakiaren bidez, eta Arabako Foru Aldundiaren beharrezko baimenarekin, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da:

Arraseko mozketa bidezko lotea, onura publikoko 40 mendian, Askigorta-Mastondo dermioan; intsinis pinuaren 4.487 oin, 2.3 kudeaketa unitateko eta 2274 eta 2275 lurzatietako 18,40 hektareatan; bolumena: 4.548 m<sup>3</sup>/4; tasazioa: 195.813,33 euro, BEZa aparte; modalitatea: arriskua eta mentura.

1. Erakunde esleitzaila, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria:

– Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.

– Onura publikoko 40 mendian, Askigorta-Mastondo dermioan; 2.3 kudeaketa unitateko eta 2274 eta 2275 lurzatietako 18,40 hektareatan.

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

– Izapidetzea: arrunta.

– Prozedura: irekia.

– Forma: enkante publikoa.

3. Lizitazio oinarria:

Intsinis pinuaren arraseko mozketa bidezko lotea; tasazioa: 195.813,33 euro, BEZa aparte; modalitatea: arriskua eta mentura.

4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak:

– Behin-behinekoa: Ez da behar.

– Behin betikoa: Esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

5. Ordaintzeko baldintzak:

Administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

6. Aprobetxamendurako epea:

Azken eguna: 2022ko urriaren 31.

7. Iragarki gastuak:

Esleipendunak ordainduko ditu.

8. Agiriak eta lizitazio baldintzen informazioa eskuratzea:

Hemen daude ikusgai administrazio klausulen agiriak eta aprobetxamendua arautzen duten baldintza agiriak:

• Administrazio batzar honen kontratatzailearen profila.

• Aiarako udaletxea: Eliza auzoa 2, 01476 Arespalditza; telefonoa: 945399013; faxa: 945399331, [info@aiarakoudala.com](mailto:info@aiarakoudala.com), astelehenetik ostiralera 9:30etik 14:00etara, eskaintzak aurkezteko epearen barruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

9. Eskaintzak aurkeztea:

Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna: Eskaintzak, batera aurkeztuko diren bi gutun azal itxitan, Aiarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 9:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun balioduneko 14:00 arte luzatuko da.

Eskaintza eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio klausula berezien agirian eta baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak.

10. Eskaintzak irekitzea:

Goizeko 10:00etan, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarraren egoitzan (San Pedro auzoa zenbakirik gabe, San Pedro elizaren ondoan), eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren laugarren egun baliodunean (larunbata ez).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Menagarai-Beotegi, 2021eko abuztuaren 20a

*Lehendakaria*

*M<sup>a</sup> CARMEN CAMPO URQUIJO*